

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuko Plan Estrategikoa 2013-2016

2013ko apirila



E info@aventoconsultoria.com
www.aventoconsultoria.com



AURKIBIDEA

Sarrera	3
Planaren kontextua	6
AMIA koadroa	7
Xedea	8
Ikuspegia	8
Baloreak	8
Ardatzak, helburuak eta estrategiak	9
Egituratu gabeko jarduera fisikoa eta kirola	9
Kirol eskaintza egituratua	10
Bergarako kirol elkartegintza	12
Kirol ekipamenduak	13
Kudeaketa	14

I. SARRERA

Bergarako Kirol Zerbitzuak, herriko kirol arloko eragile nagusia den elean, Bergarako kirol sistemaren inguruan hausnarketa sakon bat egin du. Abiapuntua, Kirol Zerbitzua Bergarako kirol sistemaren ardatz, egitura honek Bergarako kirolari egin diezaizkioken ekarpenen inguruko hausnarketan oinarritu da. Horretarako, Kirol Zerbitzuaren xedea, ikuspegia eta baloreak identifikatu dira, ondoren, Kirol Zerbitzuaren etorkizuneko erronka nagusiak finkatzeko.

Plana abian jarri aurretik, Kirol Zerbitzua osatzen duten pertsonen, batetik, zerbitzua beraren egitura eta funtzionamenduaren inguruan hausnarketa bat egin dute. Eta bestetik, Kirol Zerbitzua eta Bergarako kirol sistemaren arteko harremana eta elkar eragina aztertu nahi izan dute. Horretarako, Bergarako kirol praktikari dagozkion azken urteetako datuak jaso eta aztertu dira, adin eta kirol ibilbide ezberdinei dagokien partaidetza mailari erreparatuz. Aldi berean esan behar da, informazio kuantitatiboa ez ezik, plana gauzatzeko ezinbestekoa den informazio kualitatiboa lortzeko bitartekoak jarri direla, izan ere, Bergarako Kirol Kontseiluaren sorrera bultzatu baita Bergarako kirol sistema osatzen duten eragile guztien partaidetza bermatzeko eta horien guztien iritzia kontuan hartzeko.

Egindako azterketa eta hausnarketaren erakusle nagusia Kirol Zerbitzuak onartutako AMIA (DAFO) koadroa da. Bertan, Kirol Zerbitzuak etorkizuneko erronkei aurre egiteko gainditu beharko dituen *ahuldadeak*, uxatu beharko dituen *mehatxuak*, eta aprobeztatu beharreko *indarrak* eta *aukerak* zehazten dira.

Bestalde, Kirol Zerbitzuak dituen erronka nagusiak definitzeko, horiek modu sistematiko batean ordenatzeko eta estrategia eta egitasmo konkretuen bitartez garatzeko, eta plangintza osoaren jarraipena egin ahal izateko, beharrezkoa da plana esku-hartze esparru edo ardatz ezberdinetan egituratzea. Aipatu esparru hauek ez dira elkarrengandik independenteak, aitzitik, elkar eragina dute. Horregatik, ezinbestekoa da ardatz ezberdinetan egiten diren proposamenek guztiek Planaren xedearen lorpenarekin harreman estua izatea Planaren arrakasta bermatzeko.

Ardatz nagusiak zehazteko orduan bi irizpide jarraitu dira: lehena, Kirol Zerbitzuak egindako hausnarketaren ondorioz finkatutako kirol politikaren ardatzak Planean islatzea; eta bigarrena,

Bergarako Kirol Kontseiluak egindako proposamenak eta ezarritako lehentasunak kontuan hartzea.

Honenbestez, honakoak dira *Bergarako Udal Kirol Zerbitzuko 2013-2016 Plan Estrategikorako* proposatu diren ardatzak edo ekintza arloak:

1. Egituratu gabeko jarduera fisikoa eta kirola.

Ohiko kirol egituretatik at Bergarako herritarrek egiten duten kirol jarduerarekin zerikusia duten egitasmoak bilduko dira ardatz honetan. Batik bat, antolatu gabeko jarduera espontaneoak eta osasuna hobetzeko asmoarekin burututako jarduera fisikoa izango litzateke.

2. Kirol eskaintza egituratua.

Bergaran antolatzen diren kirol jarduera ezberdinak jorratuko dira bertan. Hain zuzen, eskola kirola eremuan antolatzen diren jarduerak, kirol elkarteen eskaintza eta Udalak antolatutako kirol eskaintza aztertu eta hobetzeko egitasmoak jasoko ditu ardatz honek.

3. Bergarako kirol elkartegintza.

Bergarako eta inguruko herrietako kirol elkarteen berrikuntza edo modernizazioa bultzatzeko beharrezkoak diren ekimenak jasoko ditu ardatz honek. Udalaren (Kirol Zerbitzuaren) eta elkategintzaren arteko harremana arautzeko oinarri berrien diseinua eta elkategintzaren berrantolaketa prozesua ere ardatz honetan jorratuko dira.

4. Kirol ekipamenduak.

Ardatz honetan Bergarako kirol ekipamenduen egoera eta gabeziak aztertuko dira, herritarren oinarrizko beharrak asetzeko ezinbestekoa den kalitatezko kirol ekipamendu sarea bermatzeko egitasmoak zehaztuko direlarik.

5. Kudeaketa.

Ardatz honetan *Begarako Udal Kirol Zerbitzuak* burutzen duen kudeaketa hobetzeko eskura dituen baliabideen ustiapenarekin zerikusia duten egitasmoak jorratuko dira. Kirol Zerbitzuaren kudeaketa moduak Bergarako kirol sisteman eragin zuzena du, hots, aurreko beste lau ardatzetan egiten diren ekintzen bultzatzaile eta arduradun nagusia izango da. Hortaz, ardatz honetan lan egiteko oinarrizko baloreak eta idelak islatuko dira.

Kirol Zerbitzuak 2013-2016 epealdian ardatz bakoitzean bete beharreko helburu nagusiak finkatuko ditu. Kirol Zerbitzuaren xedea eta ikuspegiarekin bat datozen helburu nagusi hauek estrategia jakin batzuetan oinarrituko dira. Era berean, estrategia hauek egitasmo zehatzekin osatuko dira.

II. PLANAREN KONTEXTUA

Begarako Kirol Zerbitzuaren plana kontextu jakin batean garatu beharreko ekimena da. Kirol Zerbitzua Begarako kirolaren oinarritzko eragilea izanik, plan estrategikoak kirol eremu horretan eginiko hausnarketa barneratu behar du.

Planaren garapena ondoko ideietan oinarrituko da:

- Bergara **herri aktiboa**: kalitatezko jarduera fisikoa eta kirola sustatzen duen herria da.
- **Zeharlerrotasuna**: jarduera fisikoa eta kirola beste alorrekin duen lotura indartu, hala nola, osasuna, hezkuntza, kultura, integrazio soziala, hirigintza eta turismoa.
- **Partaideitza**: planaren egitasmoak herritarren eta eragile ezberdinen partaidetza bermatuz garatu behar dira.
- **Koordinazioa**: plana arrakastaz burutzeko koordinazioa beharrezkoa da; koordinazioa maila ezberdinetan: herri mailan eragile ezberdinen artean, Udal eremuan alor ezberdinen artean, eta eskualde mailan gainontzeko herri eta Udalen arteko lankidetzaren bultzatuz.

AMIA KOADROA

AHULDADEAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Labegaraieta kirol gunea eta auzo batzuetako instalazioen egoera. - Desoreka handia, Agorrosingo eta bestelako zerbitzuen kudeaketaren artean. - Zerbitzuen prezioak, benetazko kostearen azpitik ezarrita daudela. - Burokratizazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herria oso zabala da eta kirol instalazioak oso sakabanatuak daude. - Krisialdia. - Kirol zerbitzuetako enpresek eta sindikatuek sinatutako Hitzarmen Kolektiboa.
INDARRAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> - 2013-2016 epealdirako garatu behar dugun plana. - Agorrosin kirol gunea, instalazio berria eta erabiltzaile ugari dituen. - Kirol zerbitzuko langilegoaren formazioa. - Langileen artean dagoen sintonia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol tradizio handiko herria da Bergara. - Kirolaren aldeko agente ezberdunen inplikazioa: kirol elkarteak, eskolak, etab. - Debagoienako kirol zerbitzuak.

XEDEA

Gure herritarren bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen kirol ekipamenduen, kirol jarduera eta jarduera fisikoen eskaintza egitea Bergarako eta inguruko herrietako biztanleriarentzat.

IKUSPEGIA

Bergara, nahi duen orok erregulartasunez jarduera fisikoa egiten duen herri aktiboa izatea eta kirol ekipamendu eta jarduerak gure biztanleriaren beharrak asetzea.

BALOREAK

- Pertsonak gara garrantzitsuena; herritarrak, erabiltzaileak, langileak, politikariak, etab.
- Bergarako kirol proiektua proiektu bizia eta aldakorra izan behar da, eta ekarpenak egin nahi dituzten herritarren eta kirol arloarekin lotura duten eta ez duten erakundeekin harremanean oinarrituta egon behar da.
- Kanpora begiratu behar dugu besteek egiten dutenaz ikasteko eta gure jardueran eragina duen ingurune edota talde bateko partaide garela kontziente izateko.
- Gaitasuna, jatorria, sinismena, sexua,... zeinahi ere den, guztiek dute eskubidea jarduera fisikoa egiteko; eta gure egitekoa berau bermatzea da.
- Gure eguneroko jarduerak ingurugiroa errespetatu dezan saiatu behar gara, kontsumoa ahalik eta gehien arrazionalizatuz eta isurketak minimizatuz.
- Finantza-oreka bat bilatu behar dugu gure proiektua denboran iraunkorra izan dadin.

III. ARDATZAK, HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

1

EGITURATU GABEKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

1.1 Herritarren jarduera fisikoa errazten eta sustatzen duten ekimenak bultzatu biztanleria aktiboa izan dadin.

1.1.1 Udal edota eskualde mailako baliabideak eta egitasmoak jarduera fisikoa sustatzeko egun dauden programen aplikazioa. "Aktibili" *Jarduera Fisikoaren Euskal Plana* Bergaran ezarri eta garatzea.

1.1.2 Udaleko beste alorrekin ekintza bateratua eta koordinatua bultzatzea. Udal mailako Koordinazio Mahia.

1.1.2.1 **Hirigintza:** hirigintza planean kirol ikuspegia barneratu, sare ez motorizatua diseinatzeko eta gauzatzeko, eta Begarako espazio eta ibilbide naturalak seinaleztatu eta ezagutzera emateko (parkeak, gerriko berdea, etab.).

1.1.2.2 **Kultura / Hezkuntza:** Begarako gazteriaren aktibitate maila sustatzeko estrategia bateratuak definitzeko. Batez ere 12-18 urte tarteari eta nesken partaidetzari erreparatu.

1.1.2.3 **Ongizatea:** Udalaren kirol eskaintza egituratua behar bereziak dituzten biztanleak identifikatzeko eta eskaintza hauengana iritsi dadin, eta bazterketa arriskuan dauden biztanleentzat eskuragarria izan dadin irizpide ekonomikoak ezartzeko.

1.1.2.4 **Euskera:** jarduera fisikoa eta kirola euskeraz egin ahal izateko bitartekoak ezartzeko..

2 KIROL ESKAINTZA EGITURATUA

- 2.1. Kirol eskaintza anitza egitea, kalitatezkoa, herritarren beharrei erantzuten diona eta kirol ibilbidearen jarraipena bermatzen duena. Kirol eskaintza sistema iraunkorra.
- 2.1.1. **Eskola Kirola:** eskola kirolean parte hartzen duten eragileen arteko akordioa bultzatu; antolamendua arautzeko, adin-tarteak definitzeko, hastapena eta lehiaketako uneak bereizteko eta kirol modalitate bakoitzaren ekintza esparrua definitzeko.
- 2.1.2. **Kirol federatua:**
- 2.1.2.1. Eskola kirolek kirol federaturantz transizioa erraztu, klubetako inplikazioa bultzatuz eskaintzaren jarraipena bermatzeko, batez ere kirol-uztea eskaintza ezaren menpe dagoen kasuetan.
- 2.1.2.2. Ibilbide ezberdinetako (errendimendua eta partaidetza) kirol eskaintza bermatu eta kupoak ezarri, neska zein mutil, edozein adin eta ezaugarri fisikoak izanda ere, kirol praktikarako aukerak denon behar eta nahietara egokituta egon daitezzen.
- 2.1.3. **Udal kirol eskaintza:**
- 2.1.3.1. Aholkularitza fisikorako zerbitzua martxan jarri, heritarrak orientatzeko, herrian dauden aukeren arabera eta praktika egokienak aholkatzeko.
- 2.1.3.2. Hirurogei urtetik gorako biztanleriaren, osasuna hobetzeko, beharrak identifikatu eskaintza egokitzeke, zerbitzuak hobetzeko eta adin horietan kirol jarduera sustatzeko.
- 2.1.3.3. Ongizate sailarekin batera estrategiak landu ezinduen beharrei erantzuteko eta etorkin zein bazterketa arriskuan daudenei ere erantzun ahal izateko.

- 2.1.3.4. Zerbitzu berriak sortu: osasun zentroekin ekimen koordinatuak abian jarri, bai errehabilitaziorako, bai mediku-preskripzio programak ezartzeko.

3 BERGARAKO KIROL ELKARTEGINTZA

3.1. Ibilbide zein kirol eskaintza anitza eta iraunkorra bermatzeko Bergarako kirol elkartegintza sendotzea.

- 3.1.1. Eskura dauden baliabideak optimizatu kirol elkarten protagonismoa areagotzeko eta eragile guztien koordinazioa sustatzeko Bergarako kirol eskaintza egituratuan.
- 3.1.2. Inplikaturako eragileekin baloratu zein neurri har daitezkeen, Bergarako kirol elkartegintzaren Etorkizuna bermatzeko.
 - 3.1.2.1. Herriko kirol modalitate gehien bilduko lituzkeen, Kirol egitura federatu bateratuaren aukera baloratu.
 - 3.1.2.2. Elkarte bateratu horren atal batzuen profesionalizazioa baloratu, boluntariora sistemarekin uztartuz.
 - 3.1.2.3. Kluben finantzaketa eredu aldatu urteko jarduera edo ekintza konkretuak baino epe luzeko proiektuak lehenetsiz.
- 3.1.3. Eskualde mailan, aktibitate federatuaren berrantolaketa aztertu, egitura sendoak izan daitezen, sexu bien eta adin eta ezaugarri ezberdinetako biztanleentzat haien behar, nahi eta gaitasunetara egokitutako kirol eskaintza ahalik eta zabalena egiteko.

4 KIROL EKIPAMENDUAK

4.1. Kalitatezko kirol eskaintza bermatu ahal izateko Begarako kirol ekipamenduaren sarea egokitu.

4.1.1. Kirol ekipamendu plana egin hirigintzarekin batera. Herri *kardio-osasuntsua* diseinatu.

4.1.2. Bukatzeke dauden proiektuak amaitu.

4.1.2.1. Agorrosin kirol gunea: kanpoko igerilekua estali eta gimnasioa atondu.

4.1.2.2. Bidegorri sarea: Labegaraietarainoko bidea seinaleztatu, argiztatu eta atondu.

4.1.2.3. IKUS 1.1.2.1. Sare ez motorizatua eta espazio eta ibilbide naturalak.

4.1.2.4. Labegaraieta ur bizi gunea egokitu/ekipatu.

4.1.3. Kirol ekipamendu zaharkituetan esku-hartzea.

4.1.3.1. Labegaraietako kirol gunea txukundu.

4.1.3.2. Frontoiak: beharrak identifikatu eta mantentze-lanak bermatu.

4.1.3.3. Ikastetxeetako kirol instalakuntzak: beharrei buruzko gogoeta (estaldurak eta erabilerak).

4.1.4. Proiektu berriak abian jarri. Koordinazioa beste arloekin.

4.1.4.1. Angiozarreko ibilgailuen zirkuitoan esku-hartzea: gunea naturala berreskuratzea eta erabilera zehaztu.

5 KUDEAKETA

5.1 Bergarako herritarren bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen kirol ekipamenduen, kirol jarduera eta jarduera fisikoen eskaintza bermatzeko kudeaketa arduratsua eta zentzuduna egitea.

5.1.1 Kirol Zerbitzuan kudeaketa eredu berria barneratu: prozesuetan oinarritutako kudeaketa.

5.1.2 Zeharlerrotasuna bermatzea Bergarako Kirol Zerbitzuko kudeaketan.

5.1.2.1 **Genero ikuspegia txertatzea:** kudeaketa ekintza guztietan hizkuntza, irudi eta ikus-entzunezko material guztien erabilera ez sexista bermatzea; kirol praktika ez egituratu eta egituratuan (eskaintzan, giza baliabide eta baliabide ekonomiko eta materialen banaketan) emakumeen kirol jarduera baldintzatzen eta oztopatzen duten eskaintza-arazoei aurre egitea kirol partaidetza aregotzeko eta emakume eta gizonen aukera berdintasuna bermatzeko; estamentu guztietan (begirale, entrenatzaile, epaile, kudeatzaile, batzordekide etab.) eta Kirol Kontseiluan emakumeen presentzia bultzatzea; eta kirol ekipamenduen egokitzapenean emakumeen beharrak kontuan hartzea.

5.1.2.2 **Agenda 21:** ingurumena eta herritarren partaidetza sustatzea: Kirol Kontseilua indartzea.

5.1.2.3 **Euskararen** erabilera lehenestea kirol arloan egiten diren ekintza guztietan.

5.1.2.4 **Integrazioa:** Kirola bazterketa arriskuan dauden pertsonen integrazio tresna bihurtzea Bergaran.

5.1.3 Eskualde mailako koordinazioa elkarlanean egiten ari garen proiektuak sendotzeko eta berriak garatzeko.

5.1.3.1 Kirola Euskaraz.

5.1.3.2 Debagoienako Kirol Txartela.

5.1.4 Udal koordinazio mahaia bultzatu beste arloekin estrategia bateratuak diseinatzeko.